

2025EKO MARTXOAREN 31KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko martxoaren hamarrean, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratu-tako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxe-mai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Ez da onartzeko aktarik aurkeztu, hurrengo batzordean aurkeztuko da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 19 zenbakidun zerrenda, LAUROGEITA ZAZPI MILA EHUN ETA LAUROGEITA HAMAHIRU euro ETA BERROGEITA BAT zentimokoa (87.193,41 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- MEANDRO ALDEKO OINEZKONETZAKO BIDEAREN PROIEKTUA EGITEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIAREN ONARPENA.-

Udal honen eskariz, Soroa Arquitectos S.L.P.ko Pedro Izaskun arkitektoak, Meandro aldeko oinezkoentzako bidearen proiektua idatzi du.

Proiektuaren xedea Lazkaoko meandroaren inguruan irisgarria izango den bide bat egitea da. Bide horren helburu nagusia meandroaren zelaia inguratzea da, gaur egun dauden arkitektura-oztopoak kenduz, zehazki errepidearen azpiko pasabideko eskailerak, eta, beraz, EAEko Irisgarritasun Legearen irizpideetara egokituz hiri-inguruneetarako.

Proiektu honen aurrekontua 124.280,77 €-koa da. Zenbateko honi dagokion BEZa erantsi beharko zaio.

Beste alde batetik udal zerbitzu administratiboek kontratazio espedientea prestatu dute, lanak lehiaketa bidez esleitzeko.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du zalantzak dituela honen inguruan. Gutxi landu dela gaia beraiekin, Hirigintza batzordean zerbait baina gutxi. Berdegune bat izanda, hormigoia sartzeari beharrezkoa al den galdetu du, eta ea irisgarritasuna bermatuko al den.

Alkateak erantzun du irisgarritasuna bermatzen dela, dauden eskailerak kenduko baitira. Bestalde, teknikariek esan dutela hormigoia ez den edozein gauza jartzeak haren mantentzea zailduko lukeela. Irtenbide egokiena hormigoiarekin egitea dela uste dutela.

Hau guztia horrela, gaia aztertu ondoren eta hirigintza batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, gaia bozketan jarri da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aldeko 3 botorekin (EAJ-PNV), 2 abstentziorekin (EH Bildu) eta aurkako botorik gabe, honako akordioak hartu ditu:

- 1.- Meandro aldeko oinezkoentzako bidearen proiektua onartzea.
- 2.- Lanak lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedienteak onartu eta lizitazio deialdia egitea.

IV.- ZUBIZKITZA AUZOKO 3. FASEA BERRURBANIZATZEKO LANEN 2. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Zubizkitza auzoko 3. fasea berrurbanizatzeko lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak, Soroa Arquitectos, S.L.P. enpresakoak, eta Estibalitz Igartua arkitekto teknikoak, lanen bigarren obra egiaztagiria egin dute. Bigarren obra egiaztagiri honen zenbatekoa HIRUROGEITA HEMEZORTZI MILA BOSTEHUN ETA HAMASEI euro ETA BERROGEITA ZAZPI zentimokoa (78.516,47 €) gehi B.E.Z.ari dagokion HAMASEI MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI euro ETA BERROGEITA SEI zentimokoa (16.488,46 €) da, guztira LAUROGEITA HAMABOST MILA ETA LAU euro ETA LAUROGEITA HAMAHIRU zentimokoa (95.004,93 €).

Lanak SASOI ERAIKUNTZAK S.L. enpresa ari da burutzen.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du abstenitu egingo direla.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentziaz (EH Bildu), bigarren obra egiaztagiri hau onartu egin du.

V.- GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA FUNDAZIOARI 2025. URTEKO EKARPENA.-

Goierriko Herrien Ekintza Fundazioak bertan dauden udalerriek egin beharreko 2025eko ekarpenen zehaztasuna bidali du. Bertan adierazten da ekarpen horiek eskolako inbertsioetarako eta LHko (Lanbide Hezkuntza) gastuetatik udalei dagokion zatia aurre

egiteko direla, eta ekarpen hauek biztanle kopuruaren arabera banatzen direla ere esaten da.

Goierriko Herrien Ekintza Fundazioak bidalitako zehaztasunaren arabera, Lazkaoko Udalari 2025 urtean 43.057 €-ko ekarpena dagokio.

Hau honela, eta gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, Goierriko Herrien Ekintza Fundazioari 2025 urtean egin beharreko BERROGEITA HIRU MILA ETA BERROGEI-TA HAMAZAZPI euroko (43.057 €) ekarpena onartzea erabaki du.

VI.- GOIMEN ELKARTEARI 2025EKO EKARPENA

GOIMEN Elkarteak horretarako bidalitako idatzi bidez, 2025eko Udal ekarpenaren eskaera egin du.

Idatzi horretan esaten du GOIMEN Elkarteko Gobernu Batzordeak, 2024ko apirilaren 10ean egindako bileran, 2025 urteko udal kuota proposamena onartu zela.

Hori horrela Lazkaoko Udalari dagokion ekarpenaren zenbatekoa 9.007,24 €-koa da.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, GOIMENi 2025eko Udal ekarpen hau egitea onartu du.

VII.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Lazkaoko festetako esku programaren lehiaketako portada irabazleari.-

2025eko otsailaren 10eko Tokiko Gobernu Batzordeak, 2025eko Lazkaoko festetako esku-programaren lehiaketako portada irabazleari 200 €-ko saria ematea erabaki zuen.

Lehiaketara aurkeztutako lanak 7 izan dira. Martxoaren 10ean egindako Festa Batzordean, saria aho batez Alicia Valiña Donazar lazkaotarrari ematea erabaki zen.

Hau honela izanik, Alicia Valiña Donazarri 200 €-ko saria ematea onartu du Tokiko Gobernu Batzarrak.

Antzar konpartsari.-

Lazkaoko jaietan erraldoi eta buruhandien bilkura antolatzeagatik 5.000 €-ko dirulaguntza ematea onartzea.

Orain, 3.000 €-ko lehen zatia ordaintzea onartu da.

Ordainketa aurrekontuaren 1 481.10.334.00 partidatik egingo da.

Lazkaomendiko Jai Batzordeari.-

2025 urteko Lazkaomendiko festak antolatzeagatik, 5.000 €-ko dirulaguntza ematea. 5.000 € horietatik, 3.000 €-ko lehen zatia orain ordaintzea erabaki da.

Ordainketa aurrekontuaren 1 480.02.338.00 partidatik egingo da.

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita bost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.